



Ongi etorri BECoop buletinaren hirugarren zenbakira!

BECoop-ek orain artekoan egindako ikerketek erakutsi dute bioenergiaren ezagutza- eta onarpen-maila desberdinak direla Europako eskualde batetik bestera, eta horrek ustiari gabeko energia-iturri berriztagarri bihurtzen duela, beste batzuekin alderatuta, eguzki- edo haize-energiarekin, esaterako. Bioenergiaren merkatuaren hedapena bermatzeko –zeinak ahalmen handia baitu erregai fosilez elikatutako berogailua ordezkatzeko, eta, beraz, oso garrantzitsua baita egungo egoera geopolitikoan–, merkatuko eragileei laguntzeko irtenbideak, datuak eta tresnak behar dira.

BECoop-ek modu askotan laguntzen du ahalegin horretan; besteak beste, tresna egokiak eskaintzen dizkie alde interesatuei beren proiektuak abian jartzeko –edo funtzionarazteko–, gure buletinaren zenbaki honetan ikusiko duzun bezala. Alderdi tekniko eta finantzarioei buruzko katalogoak eta informazio-orriak egin ditugu, bi tresna gehitu ditugu gure emaitza-zorroan, eta bideo labur bat prestatu dugu, 2 minutuan erakusten duena: bioenergia eta energia-komunitateak zer diren, zer onura ekartzen dieten alde interesdun ugariei, eta nola horien konbinazioa konponbide perfektua den.

Energiaren Nazioarteko Agentziak [Europar Batasunak Errusiako gas naturalarekiko duen mendekotasuna murrizteko 10 puntuko plan bat](#) aurkeztu du duela gutxi. Plan horren 5. puntuak emisio txikiko iturrietatik (besteak beste, bioenergiatik) energia-ekoizpena ahalik eta gehien sustatzea eskatzen du, bai eta pizgarri egokiak eta bioenergiaren hornidura iraunkorrak ezartzea ere. Bien bitartean, Europako Batzordeko presidente Von Der Leyenek duela gutxi adierazi duenez, "Europak eguzki-energiatik, energia eolikotik, hidroelektrikotik edo biomasatik sortzen duen kilowatt-ordu bakoitzak errusiar gasarekiko eta beste energia-iturri batzuekiko dugun mendekotasuna murrizten du".

Gauzak norabide egokian mugitzen direla ikusten dugu, eta horrek pozten gaitu, hori baita BECoopen izateko arrazoia.

Editorial hau amaitzeko, zorionak eman nahi dizkiogu gure programa pilotuetako bati, hots, Greziako Karditsas-eko Energia Komunitateari, zein [ESCoop.eu kooperatibako kide berri bihurtu baita](#), berriki, hainbat alde interesdunekin (Udala, unibertsitatea, etab.) ingurueteko baso-hondakinak berokuntzarako aprobeztatzea adostu baitu.

Gozatu eta ez dudarik izan gure lana partekatuzko,

## KASU!



Hona BECoop zer den, bideo labur batean azalduta!

2 minutuko tarte laburrean, biomasa, berokuntzarako eta energia-komunitateetarako bioenergia eta beste kontzeptu batzuk azaltzen dira bertan. BECoop bera aurkezteaz gain, bideoak Europa osoan berokuntza bioenergetikoko teknologien hedapen zabala sustatzeko eta energia komunitarioaren sustapena berokuntza bioenergetikora transferitzearen aldeko politikak gaitzeko funtsezko ekintzak azaltzen ditu. Italieraz dago, eta laster baita grezieraz, gaztelaniaz, euskaraz, polonieraz, alemanez eta frantsesez ere.

---

## PIL-PILEKO KONTUAK

### Gure proiektuen txosten eta fitxa teknikoak

*Jarraian aipatzen den informazio guztia Europako Batzordearen onespeneren mende dago oraindik.*

**BECoopi buruzko txostenak eta fitxa tekniko, komertzial eta finantzarioak: material berria eskuragarri (bio)energia-komunitateetan interesa duten alderdientzat**

- Zer alde dago zuzeneko berokuntzaren eta hiri-berokuntzaren artean? Nolakoak dira instalazioak?
-

- Zer alde dago bioerregai solidoen artean, horiek biltegitratzeko moduen, eta funtzionamendu- zein mantentze-prozeduren artean?
- Zer errentagarritasun eskaintzen dute? Zer nolako gobernantza-, antolaketa- eta finantza-egitura dituzte RESCoop proiektuek?

Horri buruz beti jakin nahi izan duzun guztia eta are gehiago, *BECoopen laguntza tekniko, enpresarial eta finantzarioko materialean*: 2 txosten eta 3 informazio-orri jarri ditugu eskuragarri, berokuntzako teknologiak deskribatzen, eta erabakiak hartuz komunitate bioenergetikoetan interesdunak gidatzen dituztenak, proiektuak garatzeko ahaleginak minimizatuz, lau negozio-eredu aztertuz (tartean arrakasta-kasuak). 2023an, katalogo tekniko berriak (eskala txikiko aplikazioetarako biomasadun biogasaren/biometanoaren instalazioa) eta fitxa teknikoak (lehengaien ebaluazioa) egongo dira eskuragarri.

*Ikerketa*-fase baten ondoren, gaur egun irtenbide praktikoak garatzen ari gara, gure RESCooppei laguntza tekniko, enpresarial eta finantzarioa eskaintzeko (besteak beste: bisitak, teknologia egokia hautatzeko zein merkataritza-bazkideak hautatzeko laguntza, enpresa-modelizazio eta -plangintza, sareen sorrera eta inbertsioa), betiere katalogoen edukira egokituta.

**BECoop**  
UNLOCKING THE COMMUNITY BIOENERGY POTENTIAL

**Technical, business and financial support material for bioenergy communities**

**Technical catalogues and factsheets**

**CATALOGUES**

- Direct heating with biomass
- Biomass co-generation for small scale applications
- Biomass district heating

**FACTSHEETS**

- Solid biomass for small-scale heating applications
- Biomass logistic supply chain
- Solid biofuels production

**Business and financial catalogues**

Unveiling the governance and financial models behind successful community energy cases, and linking them with relevant governance structures.

BECoop has received funding from the European Union's Horizon 2020 Research and innovation programme under grant agreement No 952930.

## Gure tresnak

**Bioenergia bidezko energia komunitarioko merkatua aktibatzea: merkatu-ingurune elektronikoko berri bat, biomasa bidezko berokuntza-horniduraren kateetan interesa duten alderdiak konektatzeko.**

BECoop-ek laguntza-tresna berri bat jarri du abian (bio)energia komunitarioko proiektuak sortzeko edo eguneratzeko interesa dutenei begira: [merkatu-ingurune elektronikoko](#) bat. Tresna horrek hornidura-kateko bioenergia komunitarioko proiektuak garatzen laguntzen die interesdunei, kasu bakoitzean beharrezko zerbitzuak eta jarduerak definitzen. Tresna horrek tokiko hornidura-kate eraginkor bezain iraunkorrak

eta bioenergia komunitarioko proiektuak ezartzeko alderdi interesdunen arteko elkarreraginak eta eskaini beharreko jarduerak/zerbitzuak erakusten ditu, hartara prozesua bizkortzen delarik. [Tresna](#) erabilerraz eta intuitiboa da, bakarra sektorean, eta biomasa bidezko berokuntzaren hornikuntza-katean parte hartzen duten alde interesdunak identifikatzeko aukera ematen die enpresaburuei, bai eta horiekin harremanetan jartzeko ere, beren proiektuak gauzatzeko, eta besteren esperientziatik eta antzeko ekimenetatik ikasteko. Beste batzuek tresnara igo dituzten eskaintzak eta premiak aztertu ditzakete –edo berenak aurkeztu–, bazkide nazionalekin edo atzerritarrekin lankidetzan aritzeko, alde interesdun mota ugariak: biomasaren alorrean diharduten jabe, hornitzaile edo kudeaketa-enpresek, ekipo-fabrikatzaileek, ESE (energia-zerbitzuen enpresek) eta energia-instalatzaileek, kooperatiba, energia-komunitate eta RESCoop-ek (iturri berriztagarri bidezko energia-kooperatibak), inbertitzaileek, ikerketa-zentroek, erakunde publikoek eta abarrek. Eskaintza zein eskaerak kategoriatan, herrialde alde interesdun motaren arabera iragazi daitezke. Alde interesdun guztiak gonbidatu nahi ditugu ingurumenaren garapenean laguntzera.

Tresnari buruz gehiago jakin nahi baduzu, CIRCE Teknologia Zentroak txosten bat idatzi du (ingelesez), azaltzeko nola garatu den ingurunea, zer aurki daitekeen bertan, nola erabiltzen den eta hurrengo hilabeteetan zer espero daitekeen harengandik: [D2.5 Bioenergy RESCoops e-market environment \(D2.5 Bioenergy RESCoops merkatu-ingurune elektronikoa\)](#).

**BECoop**  
UNLOCKING THE COMMUNITY  
BIOENERGY POTENTIAL

**E-Market environment**

Login E-Market

Remember me  
Login

**Identify and connect with supply chain stakeholders when creating/operating new and existing energy communities!**

[www.becoop-project.eu](http://www.becoop-project.eu)

BECoop has received funding from the European Union's Horizon 2020 Research and innovation programme under grant agreement No 952930.

**Berokuntzarako bioenergia komunitarioaren potentzial osoa aprobetxatzea: BECoopen autoebaluazio-tresnak bioenergiari buruzko proiektu kooperatiboak/komunitarioak garatzen laguntzen du**

Merkatuko eragileei (bio)energiaren ekoizle bihurtzen laguntzeko, [BECoop autoebaluazio-tresnak](#) bioenergiaren merkatuaren potentzial guztia aprobetxatzeko prestatzen laguntzen die komunitateei, beren proiektuek duten potentzialaz jabetu



daitezten. Erabiltzaileek komunitateko bioenergiaren egungo egoera eta etorkizuneko potentziala ebalua dezakete, honako hauek hobeto uler ditzaten: hutsuneak, berokuntza bioenergetikoa hartzeko heldutasun-maila, komunitatearen konpromiso-maila, eta berokuntza bioenergetikoaren aldeko politikak abiarazi eta diseinatzeko konplexutasuna. Espezializazio zein esperientzia urria izan arren bioenergia kooperatiboko/komunitarioko proiektu baten egungo egoera ebaluatu nahi duten erabiltzaileentzat diseinatutako [tresna honek](#) hornitzaile, instalazio-operadore, RESCoop, tokiko/eskualdeko agintari eta abarri lagun diezaieke. Galdera batzuei erantzun ondoren (eskura dauden baliabideei, beren ekimena hobekien ordezkatzeko jarduerari eta beste zenbait gairi buruz), tresnak gomendatuko dizkizun ekintzek laguntza-baliabide egokien bidean jarriko zaitu, eta puntuazio jakin bat esleituko dizu armiarma-sare itxurako grafiko baten bidez.

Kontuan izan erabiltzaileek BECoopen tresna guztiak izango dituztela eskura saio-hasierara bakarrarekin, hala [merkatu-ingurune elektronikoan](#) nola laster eskuragarri izango den [Ezagutzak Trukatze Plataforma](#), nolabaiteko leihatila bakarra, eskualdeen eta sektoreen arteko lankidetzaz-oztopoak ezabatu eta informazioa eta ezagutzak partekatzeko.

**Self-assessment tool**

**Assess the current state of a cooperative/community bioenergy project:**

- For non-specialised, non-experienced users
- Supports bioenergy's market expansion, with high potential for replacing fossil fuelled heat

[www.becoop-project.eu](http://www.becoop-project.eu)

BECoop has received funding from the European Union's Horizon 2020 Research and innovation programme under grant agreement No 952930.

BECoopen tresna-sorta hazten ari da, baliabide berriekin.

Gure tresna-liburutegiak gidatuko zaitu zuretzako egokiena bilatzen. [Tresna-kutxa](#) bioenergia eta berokuntzako proiektu komunitarioen sustatzaile eta operadoreei laguntzeko diseinatuta dago. Lau tresna-kategoria nagusi aurkituko dituzu:

- Tresna teknikoak: edonolako gai teknikoak ebazteko.

- Negozio-ereduari buruzkoak: nagusiki finantza-ereduekin eta hornidura-katearekin lotuak, baita datu-base politikoekin edo plan estrategikoekin ere.
- Eredu komunitarioari buruzkoak: komunitateak sortzen zein komunikazio- eta kudeaketa-kontu konplexuak eztabaidatu eta jorratzen laguntzeko tresnak; baita bozketa-tresnak ere.
- Erlazionatutako proiektuei buruzkoak: energia berriztagarriekin, energia-komunitateekin, energia-eraginkortasunarekin edo ekonomia zirkularrarekin lotutako proiektuen inguruko tresnak.

**Zerbaiten hutsa sumatzen duzu? Hala bada, jar zaitez gurekin harremanetan, zure iradokizunak helarazteko.**

## **Proiektu pilotuei buruzko albisteak**

Ezaugarri desberdinetako 4 proiektu pilotu osagarritan bioenergia bidezko komunitate-berokuntzako proiektuak ezartzeko saiotan da BECoop, Espainian, Grezian, Polonian eta Italian. [Bilduma honetan](#) gure proiektu pilotuei buruzko albisteak ikus ditzakezu; batez ere komunikabideetan, bideoetan eta bileretan izandako agerpenak nabarmentzen dira.

## **BEECoop komunikabideetan**

### **Artikulu (ingelesez) - Energiaren prezio altuak direla eta, erantzun posibleetako bat (bio)energia berriztagarrien komunitateak balira?**

Independentzia energetikoa, horra EBren gaur egungo agendaren lehentasunetako bat. Europako ia biomasa guztia tokian-tokian ekoizten da dagoeneko, eta EBko energia berriztagarriaren % 60 inguru hartzen du. [Artikulu honetan, BECoopek biomasa-prosumitzaileen proiektuen sustapena defendatzen du; biomasa baliatzen duten eta -gasa, petrolioia eta ikatzaren prezioen igoera latzen aurrean- energiaren prezio egonkorrak dituzten eskualdeak aipatzen dira bertan](#). Energiaren prezioen eta energia-pobreziaren krisien konponbidea ezin da epe luzekoa zian. Aldiz, biomasa bidezko energia-komunitateak sortu beharko lirakeke, energia-iturri berriztagarrien konbinazio baten barruan, energia-segurtasuna eta prezioen egonkortasuna bermatzeko.

### **BECoop komunikabideetan - Bioenergia komunitarioaren merkatu-ahalmena askatzea**

BECoopi eta gure merkatu-ingurune elektronikoari buruzko informazioa [Europako Batzordearen CORDIS webgunea](#), 6 hizkuntzatan: ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, italieraz, polonieraz eta alemanez

[Abenduko gure buletina](#) ere eskura dezakezu dagoeneko, gaztelaniaz eta euskaraz.

## Egindako ekitaldien emaitza nagusiak

### Elkarrekin sortzeko lantegiak

Elkarrekin sortzeko lantegiak antolatu ditugu gure eskualde pilotuetako 4tan, horien bidez komunitate bioenergetikoen beharrak eta erronkak tokiko ikuspegi konpartitu batean eta energia berriztagarrien bidezko berokuntzarako ibilbide-orri batean islatzeko. Toki-komunitateak bildu genituen lantegietan, beren behar eta erronketarako berokuntza bioenergetikoaren aukera egokiena identifikatu, proiektuaren bete beharreko jarduerak definitu (ibilbide-orria) eta proposatutako irtenbidearen bidez landu beharreko muga eta/edo oztopoak zein tokiko premiak identifikatzeko. Lantegiak beste bi xede zituen: baliabideen (lastoa eta baso-biomasa) egungo ustiapen-prozesuaren abiapuntua zehaztea, eta sortuko zen komunitate bioenergetikoaren balio-katean inplikatzeko borondatea ezagutzea.

Kontsulta-prozesu horretan, tokiko alde interesatuen ordezkariak tokiko agintariekin eta bioenergiaren alorreko eragileekin bildu ziren, BECoopeko adituen gidaritzapean. Tokiko eremu pilotu bakoitzak ondorio bat eta berea atera zuen erregai fosiletatik bioenergiara aldatzeko prozesuaren alderdi itxaropentsuenei buruz. Prozesuaren amaieran, tokiko proiektu pilotuetako kideek komunitateei lagundu zieten elkarrekin sortzeko lantegien emaitzak, bioenergiaren bidez berokuntza komunitarioa lortzeko ibilbide-orri bihurtzen, honako hauek aintzat hartuta: ikuspegi orokorra, jomuga eta helburu espezifikoak, eta esku hartzeko arloak. Tailerren emaitzak txosten batean jasoko dira, eta txosten hori gure webgunean egongo da eskuragarri, maiatzean. [Artikulu honetan lantegi pilotu bakoitzari buruzko informazio gehiago irakurri dezakezu \(ingelesez\).](#)

**Kontzientziazio-kanpainak:** barne-prozesua, ideia-jasaren bitartez bideratua, komunitate bioenergetikoak sustatzeko modurik onenari buruz

Eskualdeko eta EBko energia berriztagarriari edo bioenergiari buruzko kanpainen adibide interesgarriak aztertu ondoren, BECoopeko kideek sormen-lantegiak antolatu zituzten, honako hauen inguruan hausnartzeko: nola alde interesatuak proiektuaren inguruan federatu; nola alde interesatu gehiago erakarri, lehendik dauden bioenergia-kooperatibekin bat egin dezaten; eta ukitzen gaituzten gaien inguruan kontzientziazioa. Eskualde pilotuetan barne-lantegiak antolatu ziren, tokiko beharrei, xede-publikoari eta bakoitzaren eragin-eremuan ahalik eta eragin-gaitasun handiena lortzeko moduei buruz eztabaidatzeko. Zenbait teknika baliatu ziren saioetan: ideia-jasa, mezu-teknika eta komunikabideak. Jarraipen-saioetan kontzientziazioa areagotzeko eta gizartearen zein kontsumitzaileen aldetik –nola eskualde pilotuetan, hala EB osoan ere– komunitate bioenergetikoen onarpen-maila areagotzeko asmoz aurrerantzean baliatuko dien jarduerak definituko dira: informazio-jardunaldiak, pankartak, erakusketak eta abar. Informazio gehiago hurrengo buletinean!

---

## HEMENDIK GUTXIRA

---

From setting up energy communities to making them thrive:  
**WHAT ARE THE TOOLS AVAILABLE?**



**ONLINE WORKSHOP**  
26 APRIL 2022; 9:00 - 12:30 CEST



These projects have received funding from the European Union's Horizon 2020 research and innovation programme. The sole responsibility for the content of this document lies with the EC², BECOOP, DECIDE, eCREW, UP-STAIRS, COME RES, NEWCOMERS, and W4RES projects and does not necessarily reflect the opinion of the European Union.

- Energia-komunitateren bat sortzeko prozesuan sartuta zaude?
- Energia-komunitateren batean parte hartu nahi zenuke, baina ez dakizu non aurkitu?
- Energia-komunitate bateko kide zara, eta hura garatzen, kudeatzen eta hazten laguntzeko tresnak aurkitu nahi dituzu?

Ekitaldi digital hau energia-komunitateen arloan diharduten eta H2020 programa europarraren bidez finantzatzen diren 9 proiektu antolatzen dute, eta energia-komunitateen sortzen/kudeatzen/garatu dituztenei (direla herritar, lehendik dauden edo gerora garatuko diren komunitate energetikoak, arduradun politiko, bestelako proiektu/ekimen batzuk, RESCoop, etab.) eskaintzen dizkieten tresna guztiak erakutsiko dituzte modu interaktiboan. Ekitaldi osoa ikus dezakezu, edo soilik interesatzen zaizun zatia, proiektu hauen eskutik: EC², BECOOP, DECIDE, eCREW, UP-STAIRS, COME RES, NEWCOMERS, W4RES.

[Informazio gehiago](#)

## **Gaitasunak garatzeko kanpo-prestakuntza gure eskualde pilotuetan**

BECoopeko bazkideek gure eskualde pilotuetan garatutako trebakuntza-jardueretan erabiltzeko prestakuntza-materiala diseinatu dute, xedeak direlarik: eskaria bultzatzea, alde interesdunak inplikatzeko, pertzepzioak aldatzea, eta berokuntza bioenergetikoaren alorreko eragile, RESCoop eta arduradun politikoak gaitzea, komunitateko berokuntza bioenergetikoko proiektuak eta konponbideak diseinatzen eta hedatzen lagun diezaieketen trebetasunak eskaintzea. Lantegien helburua tokiko alde interesdunei tresnak, zerbitzuak eta BECOopen ezagutzak trukatzeko plataforma erabiltzeko prestakuntza ematea izango da. Saio horien beste helburuetako bat haien trebetasunak, pertzepzioak eta ezagutza-hutsuneak lantzea izango da. Dagoeneko lehen saio bat egin da, zeinean aurrerantzean jorratuko diren gai



guztien berri eman baitzaie bazkideei. Besteak beste, bioenergiarekin eta iraunkortasunarekin, RESCoopekin eta energia-pobreziarekin lotutako auziak daude (ikuspegi tekniko, politiko eta enpresariala tarteko). Prestakuntza-lantegiez gain, jendearentzat oro har irekitako web-mintegiak antolatuko dira. Laster, informazio gehiago!

---

### Tresna gehiago, laster batean

- **Ezagutzak Trukatze Plataforma** nolabaiteko leihatila bakar bat da, eskualdeen eta sektoreen arteko lankidetzaz-oztopoak ezabatu, eta informazioa eta ezagutzak partekatzeko asmoduna.
- Azken berriak gure **merkatu-ingurune elektronikoari** buruz. Ingurune horretan *heziketa- eta informazio-bektore* bat txertatuko da, tokiko bioenergiaren eskaintza eta eskaria bultzatzen laguntzeko, bioenergia-proiektu komunitarioen (lehendik daudenen zein sortu berrien) inguruan herritarrak mobilizatzeko, eta, azkenik, aukera onenak identifikatuz (arlotan teknikoan, enpresakoan, finantziarioan zein eredu komunitarioetan), haien bideragarritasuna areagotzeko. Bektoreak bioenergiaren RESCoops potentzialei erakutsiko die, modu grafikoan erakutsi ere, tokiko hornidura-kate eraginkor eta iraunkorrak zein bioenergia komunitarioko proiektuak ezarri ahal izateko alderdi interesdunek landu behar dituzten elkarrekin eta jarduerak. Ebaluazioa eta partaideen iruzkinak funtsezko ekarpena izango dira plataformaren erabilgarritasuna areagotu eta hobetzeko; konpartitu itzazu zure iritziak BECoopekin.

---

### Kasu... BECoopen proiektu senideei!

EC<sup>2</sup> proiektuak herritartasun energetikoaren definizio bat garatu du, eta sakoneko azterlanak prestatzen ari da Europa osoko herritarrei eta komunitate energetikoei buruz: Herbeheretan, Espainian, Italian edo Polonian bizi bazara, **gonbidatuta zaude *Trantsizio energetiko garbirako komunitate energetikoak eraikitzeari buruz elkarrekin sortzeko lantegian parte hartzera.*** Herritar konprometituak, energia-komunitateetako kideak eta eragile politikoak bilduko dira, esperientziak trukatzeko eta energia-komunitate berriak ezartzeko ikuspegi onenak ikasteko asmoz. **Energia-komunitate bateko kide bazara, horietako batean hasteko asmotan bazaude, edo energia-politikaren esparruan lan egiten baduzu,** interesatuko zaizkizu ekimen hauek. Informazio gehiago:

[Scalenghe \(Italia\), martxoak 26,](#)

[Arterra Bizimodu \(Espainia\), apirilak 8](#)

[Groningen \(Herbehereak\), apirilak 19](#)

Europako energia-ekimen kolektiboren bateko kidea ote zara? Hala bada, DECIDE4energy zu bezalako jende bila duzu! Aurkeztu zaitetz deialdira, eta izan zaitetz proiektuaren parte. Gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu [online informazio-saiora](#) (martxoak 31).

---

## Albiste gehiago sektoreari buruz

- Bazkide berri-andana GoiEnerren, elektrizitatearen prezioak marka guztiak haustearen ondorioz - [artikulua](#)
  - Bioenergia Europar Batasunean: [Zer eragin sozioekonomiko eta zer garapen-ikuspegi?](#)
  - Energia-komunitateen eta ekintza kolektiboen onurak - [DECIDEren informazio-orria](#), tokiko gobernuen ikuspuntutik energia berriztagarrien ekintza kolektiboen onurei buruz
  - Energia-komunitateen eta ekintza kolektiboen onurak, begi-kolpe batean - [DECIDEren informazio-orria](#), tokiko gobernuen ikuspuntutik energia berriztagarrien ekintza kolektiboen onurei buruz.
  - EBko merkatu elektrikoaren diseinu aldakorraren eragina hiri eta komunitate energetiko adimendun eta jasagarrien garapenean - [Hiri adimendunen merkatuari buruzko dokumentua](#)
  - Alde interesdunekiko konpromisoa, energia-ekintza kolektiboak garatzeko eta arauzko oztopoak gainditzeko - [Ekimeneko materialak](#)
  - REC eta CEcei dagokienez, herrialdeen arteko [lege-esparruaren alderaketa DECIDEk egina](#).
-

- [Eurostaten azken zifrak](#) - Energia berriztagarriak etengabe handitzen dira berokuntzan eta hoztean
- "Unlocking the potential of Bioenergy" ("Bioenergiaren aukerei bide ematea") ekimenaren laburpena (ingelesez): <https://energypost.eu/event-summary-unlocking-the-potential-of-bioenergy>

## Ezagutu itzazu BECoop-eko bazkideak

BEECoop partzuergo multidiziplinar bat da, ikerketa- eta akademia-mundutik, energia berriztagarrien kooperatibetatik (RESCoop), federazioetatik eta enpresa sektoretik datozen herrialde hauetako 12 bazkidek osatua: Grezia, Herbehereak, Belgika, Danimarka, Polonia, Italiako eta Espainia.



WROCLAW UNIVERSITY  
OF ENVIRONMENTAL  
AND LIFE SCIENCES



This project has received funding from the European Union's Horizon 2020 research and innovation programme under Grant Agreement no. 952930.  
The responsibility for the information and the views set out in this document lies entirely with the authors. The European Commission is not responsible for any use that may be made of the information it contains.

Copyright © 2022 BECoop, All rights reserved.